

Euskal AEko osasun-gastua % 4,7 hazi zen 2019an

Administrazio Publikoek osasunean egiten duten ahaleginaren adierazleak Espainia eta ELGaren batezbestekoaren gainetik kokatzen du Euskal AE

Euskal AEko osasun-gastu arrunta 7.042 milioi eurokoa izan zen 2019an, 2018an baino % 4,7 handiagoa, Eustatek landutako datuen arabera. Osasunaren Kontuko datu hori eta beste batzuk Osasun Kontuen Sisteman argitaratutako ELGaren metodologiaren arabera kalkulatzen dira (System of Health Accounts-SHA 2011).

Osasunean egindako gastuak osasunerako ondasunen eta zerbitzuen azken kontsumoa neurtzen du, hau da, edozein agente finantzatzailek egindako gastu arrunta. Gastu horren finantzaketak barnean hartzen ditu Administrazio publiko guztiak, Derrigorrezko osasun-aseguruak, Borondatezko osasun-aseguruak eta Familia-etxeen ordainketa zuzena.

2010-2019 aldian, gastu arruntaren guztizkoa balio absolutuan % 2,5eko urteko batez besteko tasan igo da, eta azken hiru urteak nabarmendu behar dira hazkunde-tasa handiagoekin, % 4tik gorakoak; zehazki, 2017an % 4,0 hazi zen, 2018an % 4,8 eta 2019an % 4,7.

7.042 milioiko gastu hori BPGren % 8,9 izan zen 2019an, aurreko urtean baino portzentajezko hamarren bat gehiago. Biztanleko ratioak ere gora egin zuen aurreko urteetan baino gehiago: biztanleko gastua 3.216 eurokoa izan zen, 2018an baino % 4,4 gehiago.

Euskal AEko Osasunaren kontuaren datu nagusiak eta adierazleak. 2010-2019

	2010	2017	2018	2019(p)	Aldakuntza-tasa (%)	
					2019(p)/2018	Urteko batez besteko metagarria 2019(p)/2010
GASTU ARRUNTA, GUZTIRA (mila eurotan)	5.641.786	6.418.107	6.728.636	7.041.853	4,7	2,5
Herri Administrazioak. Derrigorrezko aseguria	4.190.948	4.456.517	4.611.115	4.849.187	5,2	1,6
Borondatezko sistemak. Etxekoan ordainketa zuzena	1.450.838	1.961.590	2.117.521	2.192.666	3,5	4,7
Biztanleko gastua (eurotan)	2.598	2.947	3.081	3.216	4,4	2,4
BPGren gaineko gastua (%)	8,5	8,7	8,8	8,9	0,1 (*)	0,4 (*)
Herri Administrazioen osasun gastua / Herri Administrazioen gastu	15,4	15,9	16,2	:	:	:

(p) behin-behinekoa


(*) aldekoa, ehunekotan

Iturria: Eustat. Osasunaren kontua

Finantzaketa-mota kontuan hartuta, 2019an gastu arrunta 7.042 milioi eurokoa izan zen, eta horietatik 4.849 milioi euro izan ziren Administrazio publikoenak eta Derrigorrezko aseguruarenak, 2018an baino % 5,2 gehiago. Era berean, Borondatezko osasun-aseguruarenak eta Familia-etxeen ordainketa zuzenenak 2.193 milioi euro izan ziren, aurreko urtean baino % 3,5 gehiago. 2010etik, familia-etxe eta borondatezko osasun-aseguru guztiei dagokien zenbatekoaren hazkundera handiagoa izan da administrazio publiko eta derrigorrezko aseguru guztiei dagokiena baino; ondorioz, azken horien ekarpena 2010eko % 74,3tik 2019ko % 68,9ra igaro da, eta familia-etxeen eta borondatezko osasun-aseguruaren ekarpena 2010eko % 25,7tik 2019ko % 31,1era igaro da.

Euskal AEn osasunera bideratutako gastuaren aldakuntzak ELGAko batezbestekoaren antzeko bilakaera izan du. 2015era arte, **per capita gastu arruntaren aldakuntza-tasak, termino errealetan**, aldakuntza handiagoak izan zituen Euskal AEn ELGAko batezbestekoan baino; urte horretatik aurrera, tasak hurbilagoak izan dira. Azken bi urteetan, 2018an eta 2019an, aldakuntza-tasa hori % 3,0koa izan da Euskal AEn, ELGAko batezbestekoa baino 0,4 puntu handiagoa, % 2,6ko hazkunde-tasarekin.

Biztanleko osasuneko gasturen urte arteko aldakuntza tasa, balio errealetan



Iturria: Eustat. Osasunaren kontua eta EKO-Osasungintza. ELGE

Administrazio publikoen ahaleginaren adierazlea, hau da, osasunean egindako gastua Euskal AEko administrazio publikoen guztizko gastuarekin alderatuta, % 16,2koa izan zen 2018an. Adierazle horrekiko nazioarteko alderaketa egin ahal izateko azken datuak 2017koak dira; urte horretan ELGAren batezbestekoa % 15,1 izan zen, eta Espainia % 15,3ra iritsi zen, bi kasuotan Euskal AEn lortu zen % 15,9ren azpitik.

Nazioarteko alderaketa egiteko ELGAren beste adierazle batzuk honako hauek dira: **gastua BPGren ehunekoan** eta **per capita osasun-gastua EAPn (\$)**. **2019an** Euskal AE ELGAko batezbestekoaren gainetik dago bi adierazleetan. Euskal AEko osasun-gastu arrunta BPGren % 8,9 izan zen, ELGAren batezbestekoa (% 8,8) baino 0,1 puntu altuagoa, baina Espainiakoa (% 9,0) baino pixka bat txikiagoa. Hobe da **per capita osasun-gastua EAPn (\$)**, **4.871** izan baitzen Euskal AEn, % 15 ELGAko batezbestekoaren gainetik (4.224), eta Espainia (3.616) eta Finlandia bezalako herrialdeen gainetik (4.578); beste aldean, urrun Suitza (7.732), Norvegia (6.647) eta Alemania (6.646) bezalako herrialdeetatik, den-denak taularen goiko muturrean.

Osasun gastuaren adierazleak herrialdearen arabera. 2019

	BPGren gaineko gastu publikoa	Gastu publikoa/gastu guztira (%)	Gastu publikoa / Herri Administrazioen gastu guztira (%) (1)	BPGren gaineko gastu guztira (%)	Biztanleko gastu guztira (EAP, US\$)	Biztanleko BPG (EAP, US \$)
OCDE	:	:	15,1	8,8	4.224	:
Alemania	9,9	85,0	19,9	11,7	6.646	55.795
Austria	7,8	75,2	15,7	10,4	5.851	58.731
Belgika	7,9	76,0	15,3	10,3	5.428	53.746
Kanada	7,6	70,4	19,3	10,8	5.418	50.967
Danimarka	8,4	83,8	16,6	10,0	5.568	59.266
Espainia	6,4	70,8	15,3	9,0	3.616	41.903
Estatu Batuak	14,4	84,8	22,5	17,0	11.072	65.281
Finlandia	7,0	77,2	13,0	9,1	4.578	50.568
Frantzia	9,4	83,7	15,5	11,2	5.376	47.868
Irlanda	5,1	74,3	20,0	6,8	5.276	90.562
Islandia	7,3	82,9	15,7	8,8	4.811	59.061
Italia	6,4	74,1	13,4	8,7	3.649	43.901
Norvegia	9,0	85,4	17,9	10,5	6.647	69.426
Erresuma Batua	8,0	77,8	18,7	10,3	4.653	48.226
Suedia	9,3	85,2	18,7	10,9	5.782	55.095
Suitza	7,8	64,5	11,0	12,1	7.732	70.770
Euskal AE	6,1	68,9	15,9	8,9	4.871	54.957


(1) Iturria: Health at a Glance 2019, Eskuragarri dauden azken datuak 2017koak dira

2019 behin-behineko datuak edo herrialde guztietarako estimatuak

EAP: Eros Ahalmenaren Parektasuna

Iturria: EUSTAT, Osasunaren kontua eta OECD Health Statistics 2020 (updated June 2020)

Osasun gastuaren adierazleak herrialdearen arabera. 2019



2019 behin-behineko datuak edo herrialde guztietarako estimatuak

Iturria: EUSTAT, Osasunaren kontua eta OECD Health Statistics 2020 (updated June 2020)

Euskal AEko Osasunaren Kontuaren datuen analisi zehatzago batek 2019rako erakusten du ezen, **gastua funtzioen arabera** banatzean, pisurik handiena segitzen duela izaten Osasun-asistentzia sendagarriak, zeina 2019an gastu arruntaren % 56,5 izan baitzen eta, 2018aren aldean, % 6,9 hazi baitzen. Garrantzian bigarren funtzioa Produktu medikoena da (farmazia-produktuak, protesiak...), gastu arruntaren % 16,5ekin, eta 2018ren aldean % 1,1eko gehikuntza neurritsuagoarekin. Hirugarrenik, egonaldi luzeko osasun-asistentziaren gastua (mendekotasuna duten pertsonen osasun-arreta ematera bideratutako gastua barne) % 16,1 izan zen gastu arruntaren gainean eta % 1,9 hazi zen 2018arekiko.

Euskal AEko osasun gastua funtzioen arabera (milaka euro). 2010-2019


FUNTZIOAK	2010	2017	2018	2019 (p)	Osasun gastu arruntaren gainera (%)		Aldakuntza-tasa (%)	
					2010	2019 (p)	2018/2017	2019 (p)/2018
HC.1 Sendatzeko osasun-laguntza	2.986.866	3.523.199	3.721.741	3.976.854	52,9	56,5	5,6	6,9
HC.2 Birgaitzeko osasun-laguntza	95.767	126.734	130.326	136.097	1,7	1,9	2,8	4,4
HC.3 Egonaldi luzeko osasun-laguntza	903.024	1.076.794	1.109.299	1.130.746	16,0	16,1	3,0	1,9
HC.4 Osasun zerbitzu osagarriak	341.665	314.716	328.452	341.903	6,1	4,9	4,4	4,1
HC.5 Osasun-produktuak (beste funtzioen bamean ez daudenak)	1.057.622	1.103.118	1.148.567	1.160.990	18,7	16,5	4,1	1,1
HC.6 Prebentzio zerbitzuak	75.203	91.781	93.809	94.542	1,3	1,3	2,2	0,8
HC.7 Osasun-sistemaren eta osasun-finantzaketaren administrazioa	181.639	181.765	196.442	200.721	3,2	2,9	8,1	2,2
OSASUN GASTUA, GUZTIRA	5.641.786	6.418.107	6.728.636	7.041.853	100,0	100,0	4,8	4,7

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Osasunaren kontua

Osasun-asistentzia motaren arabera zehaztasunak (ospitaleratzea, anbulatorioa eta etxez etxekoa) adierazten du ezen 2010 eta 2019 artean zaintza anbulatorioetako gastua (kanpoko kontsultak eta eguneko ospitaleratzea) % 4,2ko urteko batez besteko tasa metatuan igo dela, ospitaleko asistentziara bideraturikoaren gainetik (% 2,2ko tasarekin) eta etxez etxeko asistentziako gastuaren gainetik, % 1,5eko urteko batez besteko tasan igo baita.

Osasun gastu arruntaren banaketa hornitzaileen arabera 2019 (p)



(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Osasunaren kontua

Hornitzaileen araberako gastu-egitura aurreko aldietakoaren antzekoa da; gastuaren zatirik handiena (% 40,3) ospitaleetan egin zen, eta, halaber, hazkunde handieneko partida izan zen, % 6,8. Bigarren postuan osasun-laguntza anbulatorioaren hornitzaileak daude, gastuaren % 23,1 kudeatu baitzuten. Ehuneko apalagoekin daude Txikizkariak eta produktu medikoen hornitzaileak, gastu arruntaren % 16,5 izan zirenak, eta egonaldi luzeko egoitza-establezimenduak, % 11,1. Gainerako gastuaren % 9,0a dagokie zerbitzu osagarrien hornitzaileei (osasun-garraioa, laborategiak), prebentzio-zerbitzuen hornitzaileei, osasun-sistemaren administrazioari eta ekonomiaren gainerako arloei; azkenak barnean hartzen ditu familia-etxeak etxeko osasun-arretaren hornitzaile gisa.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62